

245. zk.

Bigarren aroa

Urtarrilak 15
2015

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea

Ana Izuraren
lan artistikoa.

3. orrialdea



Kirolak

Kirola gimnasioa
biziberritu dute.

8. orrialdean



Juanma Garate txirrindulariaren amaiera gazi-goza

- 4 Liburutegi berria
- 5 Elkarrizketa Iñaki Bengoetxea, sagardogilea
- 6 Inkesta Nola ikusten duzu 2015a?
- 7 Eguberriak Caser Anakan
- 10 Hurren Leioa Toki Alai LH 5
- 11 Gurasoentzak Lotsa
- 12 Gazteen lanak Txingudi Ikastola DBH 4
- 14 Gazte infor
- 15 Kultur agenda

**Jaso ezazu
IRUNERO etxean !!**

iarozena@irunero.com 693 828099



**TXOTX BERRIA
IREKIERA FESTA**
Urtarrilak 18, igandea
14:00etan
ZATOZ I



Kontrako norabidean



Yurre Ugarte

Trenera igo dira; gizon itsua bi emakumek lagunduta, eskuineko besotik heltzen diona bata, ezkerretatik bestea. Itsua altua denez, daraman (mendiko) makila-makulua ere luzea da, eta bizarra fin eta luzaxkarekin batera, Jesukristo mendira igo zeneko nolabaiteko itxura ematen dio. Noizbait urdin-urdirak izango ziren itsuaren begiak, orban beltz hedakor batek ia desagertarazi ditu, haien gainean norbaitek rotring trakets batez markatu izan balu bezala. Bibliaren jatorrizko pertsonaiak dirudite. Edo, zehazkiago esateko, Koran beretik irten direla esan behar, zeren bi emakumeek hiyab eta al-amira motako beloak dara-

matzate, eta larruzalagatik ere hiru hurrek hemen eta egun "musulman" itxuraz ezagutzen duguna haragiztatzen dute. Tren garaikidera antzinako Palestinako lehen biztanleak sartu bailiran. Gu geu sermoia irakurtzen ari gara egungo gure biblian: egunkaria. Bertan, Parisen burutu den manifestazio erraldoiaren harira ateratako foto batean, ageri dira mendebaldeko eta ekialdeko agintari-presidente ahalguztidunak besotik elkarlotuta. Airetik ateratakoa denez, argazkiak nabarmentzen du agintari eta bizkartzainen atzean ez dagoela inor, ez jendetzarik, ez herritarrik, ez manifestaziorik; hutsune bat besterik ez, distantzia izugarri handia, haiek beharrezko duten babeslekua. Argazkia ez da portada izan inongo egunkaritan.

Guk sermoiak irensten jarraituko dugu, ohartu gabe elkarlotutako agintari-presidenteen eta trenean goazenen arteko distantzia gero eta handiagoa dela, kontrako norabideetan goazela ez esateagatik. Ikusi nahi ez duen itsua baino itsuagorik ez dago, esan ohi da. Ordea, trenera igo den bezalako pertsonari deitzen diogu "bentako itsu", lasai asko.

Irun atzo Irun gaur

Bixera atzo



Orain hiru urte eraitsi zuten gune berezi horren historia 1936an hasi zen. Hirian izandako sutearen ondoren erdialdeko eraikin gehienak desagertuak ziren, edo kalte handiak izan zituzten; gauzak horrela, partikular batzuek Institutu Politeknikoak hartua zuen lurzatia erabiltzeko eskaria egin zuten. Estalpe moduko eraikin kaskarrak egiten ari zirela ikusirik, eta hiriak pairatzen zuen salmentarako lokalen gabeziari aurre egin nahian, Udalak *biseraren* proiektua lantzea erabaki zuen. 1937an lokalak alokatzeko araudia onartu zen. Lehen tasuna izan zituztenen artean, hauexek aipatzen ziren:

- Establezimenduren baten arduradunak izan eta "gorriek



hil zituzten herritarren" alargunak.

- "Gorrien zapalkuntza" jasan zuten pertsonak.

- "Gorrien hordek" eragindako hiriaren sutearen ondorioz kaltetutakoak.

- Gerran hurbileko senideren

bat galdu zutenak.

Eraikuntzaren planoetan eraikina erloju batez hornitua agertzen zen, baina 1953 arte ez zen instalatu.

Goiko argazkian Bixeraren atzean dauden etxeak 50eko hamarkadan eraitsi zituzten.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea: Xabier Kerexeta

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sansonbastian.com

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57



TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57




BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Maisuaren eskutik

Gaspar Montes Iturrioz omendu nahi izan du Ana Izurak Menchu Gal aretoan antolatu duen erakusketarekin

Menchu Gal aretoan erakusketa egiteko aukera eman ziotenean, bere ibilbidearen bilduma hutsa baino gehiago antolatu nahi izan zuen Ana Izurak (Tafalla, 1943). Berarentzat, lekua “oso berezia” dela azaldu du. Sanchu de Urdanibiak eginarazitako ospitaleko bigarren solairuan zegoen XX. mendearen erdialdean Irungo udal margolaritza akademia, gaur egun Udal Euskaltegia dagoen tokian. Bertan, Gaspar Montes Iturrioz irakaslearekin eman zituen lehen urratsak Ana Izurak. Omenaldia egin nahi izan dio “Ana Izura... de la mano de Gaspar” erakusketarekin.



Ana Izura, Menchu Gal erakusgelan ikusi ahal den bere obra batekin.

Bi gune ditu Menchu Gal aretoak. Gaspar Montes Iturrioren eragina eta Izuraren eboluzioa erakusten ditu handiak. Intimista eta pertsonaietan zentratua da txikiak. Lehenengotik hasi nahi izan du bisita Ana Izurak. “Erakusketa bakoitzak badu bere ordena. Koadroak ez daude ausaz kokatuta”, baieztatu du. Maisuaren koadroekin hasten da, beraz, erakusketa. Ezagun egin zuten paisaien pinturak dira lehen koadroak. Ana Izurarenak datoz ondoren, Gaspar Montes ikasle izan zen garaikoak. “Nire lehen irakaslea izan zen, eta bere eragina agerikoa da etapa honetan”. Pixkanaka, formak lausotu egiten dira hurrengo koadroetan. “Nire burua agertzen hasten da”, laburbildu du Izurak.

“Teknikak edo euskarriak zeharo aldatu dezake koadroaren zentzua”

Ana Izura

Koadro handi bakar batek hartzen du hondoko horma. Paisaia abstraktua da, kolore biziz osatua. “Ikusten ditudan gauzak irudikatzen ditut, baina nire modura interpretatuta”, azaldu du artistak. Interpretazio horretan, garrantzia dute teknikek, materialek edo euskarriek. Denetarik dago erakusketan: olioak, grabatuak, serigrafia, mihisearen gainekoak, zuraren gainekoak, metalean, kartoiaren edo kotoi gainean egindakoak... Aniztasun hori bere obraren ezaugarri nagusietako bat dela onartu du Ana Izurak: “Teknikak edo euskarriak zeharo aldatu dezake koadroaren zentzua”. Zoruan kokatutako diptiko zatia mugitu du oin puntarekin. “Ikusle batek hau egingo balu, errieta egingo liokete”, esan du barrez.

Aretoko gune txikira bidean, Madrilan, Parisen eta Europako toki ezberdinetan egindako ikasketei buruz hitz egin du Izurak: “Aberasgarria da ikuspegi zabala edukitzea. Gainera, gaur egun bidaiatzea eta informazioa eskuratzea inoiz baino errazagoa da”. Globaletik pertsonalera egin du bat-batean, pasabidea igarota. Gela txikian, erretratatuak eta gizakia protagonista duten obrak dira nagusi. Aita hil ondorengo asteetan egindako erretratuan gelditu da Izura: “Aita horrela gogoratuko dut beti”. Ama ere badago, eta aitona, baita etxeko haurrak ere. Noraezean dabilen zurezko panpin baten serieak egonezina eragiten du. Hondo gorri eta laranja baten aurrean txiki geratzen den figuratxoak ere bai: “Nire ikasleek gorroto zuten, marraz zezaten agintzen nielako”.

Zaila da ibilbide osoa erakusketa bakar batean laburtzea. “Zertzelada batzuk besterik ez du ematen”, onartu du Izura.

“Eraikinak iradokitzen zidanak hauxe eskatzen zuten”

Ana Izura

rak. Gainera, Gaspar Montes Iturrioren irudiari pisu handia eman nahi izan dio artistak. “Beste leku batean, erakusketa zeharo ezberdina izango litzateke. Baina eraikinak iradokitzen zidanak hauxe eskatzen zuten”. Koadroak modu logikoan eskegitzeaz gain, mahai-inguruak eta bisita gidatuak ere antolatu ditu Izurak: “Nire ustez, erakusketa batek parte-hartzaile behar du izan”. Urtarrilaren 29an izango da azken bisita, arratsaldeko zazpietan. Erakusketa otsailaren 15a arte egongo da zabalik, ostiraletan eta larunbatetan 18:00etatik 21:00etara, eta igandetan eta jai egunetan 11:30etik 13:30era.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Kulturaren espazio izango da San Juan plaza

Liburutegi berria zabalduko dute 2015eko iraila baino lehen

Aurrera doa San Juan plazaren beregiztatze prozesua. Lurrazpira mugitu dituzte lanak azken hilabeteotan, Irungo liburutegi berria eraikitzeko. 2.300m²ko gunea izango da, Ikust Alaia eraikinekoa baino hiru aldiz handiagoa. Otsailean bukatuko dituzte lanak, eta ekipamenduarekin osatu ondoren zabaldu ahal izango dute. Beranduenez, irailerako aurreikusiten dute inaugurazio ekitaldia.



Goiko argazkian, San Juan plazaren ikuspegi bat. Ezkerrean, liburutegi berriaren plana eta aldamenean, ekipamenduaren beiratea.



Hamarkada bat igaro da jada Irungo Udalak San Juan-Etxeandia eremua eraberritzeko proiektua onartu zuenetik. 2012an bukatu zituzten aparkalekua eta lorategiak. Obalo misteriotsua gelditu zen orduan agerian. Nahikoa kritika jaso du denbora honetan, baina laster hasiko da zentzia hartzen. Kultur zentroa sortu nahi du Udalak San Juan plazaren azpian. Lehen fasean, liburutegi berria zabalduko du, Ikust Alaia eraikinekoa ordeztuko duena. "Estrukturalki eraikin txarra da, gaur egungo beharrak kontuan hartuta. Gainera txiki gelditu da, Irunen tamaina dela eta", azaldu du Patxi Presa Udaleko Kultura Saileko zuzendariak.

Kopuruan handitzeaz gain, liburutegiko erabiltzaileak aldatu egin dira, beharrei

eta ohiturei dagokienez. Ondorioz, teknologia berrietarako, informazioaren selektioarako edo sorkuntzarako espazioak sortu nahi izan ditu Udalak, besteak beste, San Juan Harria plazako liburutegian. Beste berrikuntza bat azpimarratu du Patxi Presak: "Haurren liburutegia izango da ardatzetako bat. Ikust Alaian ez zeukan tokia edukiko du orain". Mailegurako gunea, ikasgelak eta hemeroteka ere eskainiko ditu. Gainera, KZ Gunea eta Gazte Informazio Bulegoa ere egongo dira liburutegian. Irisgarritasuna da Ikust Alaia daukan arazo handienetariko bat. Azpiegitura berriari begira, kontuan hartu dute. "Sarrera ezberdinak izango ditu: eskaile-
rak, igogailua, eta Jesus kaleko atea", azaldu du Presak.

Gune irekia izango da

Lurpean eraikitako espazioa izanda, iluna dela pentsa daiteke. Patxi Presak uste du ezusteko handia hartuko dutela erabiltzaileek: "Egia da soto bat dela. Baina altzarrien eta espazioaren antolaketa ondo pentsatuta daude. Espazio irekia eta argitsua da". Momentuz, espazio hutsa ere bada liburutegia. Lanak bukatuta, ekipamenduarekin eta materialarekin bete beharko dute. Zati handi bat, Ikust Alaia eraikinetik eramango dute. 57.800 dokumentu daude gaur egun bertan. Horietatik %92 liburuak dira. Hortaz, lana emango du lekualdatzeak. "Bi hilabete inguru beharko ditugu", aurreikusi du Presak. Epeak ez dituzte zehaztu, baina litekeena da ekainaren amaieran Irungo li-

burutegia itxi behar izatea.

Lekualdatzea egin ondoren, beste erabilera bat beharko du Ikust Alaia eraikinak. "Ideiak mahai gainean daude, baina eztabaidatu beharra dago oraindik", azaldu du Patxi Presak. Aurtengo helburuetako bat izango da Kultura sailarentzat. Bestea, San Juan plazako Kultur Zentroaren bigarren fasea diseinatzea. Tailerrak edo ikastaroak antolatzeko gunea sar daiteke proiektuan. Baita tamaina ertaineko aretoa ere. "Ficoba eta Amaia oso ondo daude, baina formatu txikiko ekitaldietarako beste zerbait behar du Irunek", argitu du Patxi Presak. Oraingoan, San Juan plazako liburutegia da Irungo kultur munduak 2015ean izango duen azpiegitura berria.

Iñaki Bengoetxea, sagardogilea

“Eguraldi kaskarra kontuan hartuta, ez genuen espero hainbesteko uzta lortzea”

Urtarrilaren 18an irekiko dute txotx denboraldia Meaka auzoko Ola sagardotegian. Jai giroan dastatuko dute bertara hurbiltzen diren sagardozelek. Lau bikote arituko dira trikitixa eta panderoarekin giroa berotzen, eta Aitor Mendiluze eta Unai Agirre, bertsoan. Aimar Irigoien harrijasotzaileak izango du lehen tragoa egiteko ardura. Errezilen jaioa da, baina Hondarribian bizi da. “Asko estimatzen dut herri kirolean dabilen jendea”, azaldu du Iñaki Bengoetxea Olako nagusiak. Irekitze ekitaldiaren aurreko kezkak alde batera utzita, gustura hitz egin du aurtengo sagardoaz eta txotx denboraldiaz.



Musika, bertsoak eta giro paregabea egon ohi da Ola Sagardotegian.

- Urduritasuna izaten al du sagardogileak denboraldia ireki aurreko egunetan?

Urtarrilaren hasieran oportetean izan naiz, eta kanpoan zaudenean ahaztu egiten duzu nolabait. Baina aurreko egunetan garbiketak, konponketak eta azken orduko prestaketak egin behar izaten dira. Orduan bai, nabaritzen da nerbio puntu bat. Hala ere, ona dela esango nuke. Exijentzia maila mantentzen laguntzen du horrek.

- Urriaren sagarra biltzen hasi zinetenetik, zer moduz joan dira hurrengo urratsak?

Udazkenean eguraldi ona egin zuen, eta asko eskertu genuen, sagarraren almidoia eta azukre maila handitu zituelako. Izan genituen udaberria eta udara kaskarrak kontuan hartuta, ez genuen espero hainbesteko uzta lortzea. Egia esan, azken hiru urtean pozik gelditu gara bildutakoarekin.

- Nolakoa da aurtengo sagardoa?

Nahiago dut jendeak dastatu ondoren esan dezan. Baina badaukat nire iritzia. Bizi antzerakoa da, eta gorputz puska bat ere badu. Kalitatez ere kolorez, aurten sagardo

ona lortu dugula esango nuke. Saiakera berezi batzuk ere egin ditugu, mota baka-rreko edo bi motako sagarrekin egindakoa, adibidez. Olara hurbiltzen denak izango du dastatzeko aukera.

- 2012an Gipuzkoako Sagardo Onenaren Saria jaso zuen Olak. Izango al da aurten lehia horretan?

Zaila da neurri horretan mantentzea. Baina lehiakorra naiz eta espero dut oraindik ere podiumean ez bada, behintzat finalista postuetan aritzea. Ahalik eta produktu onena egiten saiatzen naiz urtero. Lehengai primerakoa daukagu, eta materiala eta makineria ere, gero eta hobea. Garbitasunean batez ere, aurrera pauso handiak eman ditugu.

- Garestia al da sagardotegira joatea?

Kalitatearen eta prezioaren arteko oreka bilatu beharra dago. Badakigu ez dela prezioa igotzeko garaia, baina era berean, produktua zaindu beharra dago. Guk aurten menua 27 €tan jartzea erabaki dugu, tortilla, bakailao, txuleta, intxaur eta guzti.



Eusko Label produktuaren alde egiten saiatzen gara.

- Zergatik animatuko zenituzke irundarrek, Hernanira edo Astigarragara joan beharrean Olara etortzera?

Nahi badute asteburua euskal giroan pasa, trikitixa eta pandero doinuekin, kantuekin, hemen daukate aukera. Etxetik gertu daukate festa eta jan-edana. Hernanira joan



Pasa den urtean lepo - lepo egon zen Ola Sagardotegia txotx denboraldiaren lehen egunean.

gabe, badute ondo pasatzeko eta sagardo terapia egiteko modua.

- Eraikinak berak ere egiten du erakargarri.

Badu bere xarma, nahiko rustikoa da, saiatzen gara behintzat itxura hori mantentzen. Gero historia ere hor dago. Erdi Aroko burdinola da. Gaez barrura sartzen gara, eta hor ere badugu kupela, txotx egiteko.

BAKAILAOA DASTA EZAZU



INKESTA

Nola ikusten duzu 2015a?

Ángel Garcia Moro



Ekonomiak, industriak, komertzioak eta beste sektore batzuek pixkanaka-pixkanaka aurrera egingo dute. Ni erretiratuta nago eta ez dut gehiegi espero 2015rako, baina ahal dudan moduan Irungo dendetan erosiko dut. Egoera honetatik ateratzeko denok gure partetik jarri behar dugu.

Carmen Moraleda



Baikor ikusten dut 2015a. Badirudi krisitik ateratzen ari garela, baina ez nago batere ziur. Gaur egun langabeziak eta ekonomiak kezkatzen naute. Urte honetarako espero dut iaz bezala jarraitzea eta langabezian dagoen jendeak lana aurkitzea.

Erika Montero



Nik oso ondo ikusten dut 2015a. Sinistua nago Gobernak esandakoa beteko dela eta urte ona izango dela uste dut. Nire buruari jarri diodan helburua zoriontsu izatea da. Langabezia jaistea espero dut, eta krisia ahantzi ahal izatea.

Juan Rodriguez



2015a 2014a bezalakoa izango delakoan nago. Batez ere gazteek kezkatzen naute, langabezia handia dago eta ez dakit nola aterako diren egoera honetatik. Esaten dute egoera hobetuko dela 2015ean, baina ez dut hori uste. Ni erretiratuta nago eta ez daukat problemarik.

Carlos Montero



Nik oso gaizki ikusten dut 2015a. Hauteskundeetarako gutxi falta da eta horregatik kinka ezgonkorra egongo da. Politikariek esaten dute nahi dutena, baina ez dute herriarengan pentsatzen. Batzuek diote egoera txarrera doala, eta beste batzuk hobera. Ene iritziz, 2020ra arte ez gara krisitik aterako.

Maria Julieth



Nire aburuz, 2015a ona izango da. Ziur aski krisia ez da bukatuko, baina egoera hobetuko da. Nire kasuan suposatzen dut, eta espero dut aurten egoerak hobera egitea. Begi onez ikusten dut 2015a.

T & T Hizkuntzak



- Klaseak taldeka eta personalizatuak
- INGELESA, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA, ITALIERA, ESPAINIERA
- Enpresentzako klaseak eta ikasleentzako alor guztietako laguntza klaseak
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Ingelesa 4 urtetik aurrea !!



Kale Nagusia, 27 - IRUN - 943 63 52 59
academiatyt@gmail.com

Eguberriak

Caser Anakan



Udal Kontserbatorioko ikasleek kontzertu bat eskaini zieten Caserreko egoiliarreei.



Gaztelubide abesbatzak kantu sorta bat abestu zuen entzuleen gozamenerako.



Ángel Pazosek eta Jose Luis Azkuek Luis Marianoren abestiak interpretatu zituzten.



Hamabost gaztek baino gehiagok gitarra kontzertu bat eman zuten.



Kontserbatorioko balleteko ikasleek emanaldi bat eskaini zuten.



Olentzerori harrera eta Jaiotza Biziduna izan ziren egindako beste bi jarduera.



Erregeak Caser Anakara joan ziren eta, Irungo Atsegiñari esker, aitona-amonei 180 errege-opil eraman zizkieten. Urtean zehar Irungo Atsegiñak zenbait ekingintza egiten ditu Irungo zaharren egoitzetan.

KIROLA gimnasioa biziberritu dute

Belaskoenean dagoen Kirola gimnasioko langilea zen Eva Correa, eta erabiltzailea Aitor Berrospe. Duela bi urte eta erdi jabeek gimnasioa utziko zutela jakinarazi zutenean, haren gidaritza hartzera ausartu ziren. Pixkanaka, utzikeriak eragindako hondatzeak konpondu, gimnasioa berritu, eta erabiltzaileak erakartzea lortu dute.

Kirola gimnasioko Aitor Berrospe eta Eva Correa.



Azalpen sinplea eman du Aitor Berrospek gimnasioa hartzearen arrazoiari erantzuteko: "Langabezia zaude nean, enplegurik sortzen ez zaizunean, eta etorkizuna ilun ikusten duzunean, edozein aukerari eutsi beharra dago". Soldata duina dauka orain Berrospek, Eva Correa lankideak bezala. Beste zazpi langile dituzte gainera, monitore lanetan. "Egoera orokorra zein den ikusita, ezin gara kexatu", onartu du Correak.

Negozia hartu zutenean, gimnasioa martxan zegoen. Horrek lehen pausuak erraztu zituen. Gainera, beste gimnasio batek atek itxi zituen ia momentu berean. Haizeak alde jo zuen, beraz, hasieran. Inbertsioa egin behar izan zuten, hala ere. "Instalazioaren egoera kaskar samarra zen. Denborarekin, material berriarekin osatuz joan gara. Spinning-eko bizikletak aldatu ditugu eta korrika egiteko zinta berria erosi dugu, adibidez", azaldu du Berrospek.

Muskulaziorako bi areto, spinning aretoa eta ikastaro ezberdinak emateko beste bi dauzka gimnasioak. Aerobika, step-a, zunba, pilatesa edo borroka-arteak egin daitezke Kirola gimnasioan. Gainera, tatamia, frontoi txiki bat eta saunak ere badaude. Guzti horiek erabiltzeko, bazkide kuota ordaintzea da baldintza bakarra. "Jendearen estatus ekonomikoak kontuan hartu ditugu, eta matrikularik ez dugu kobratzen", azpimarratu du Correak. 50€ balio du hilabeteko kuotak.

"Instalazioaren egoera nahiko kaskarra zen"

Aitor Berrospe

Aniztasuna erabiltzaileen artean

Belasko eraikinean dagoen arren, Irun osoko erabiltzaileak dauzka Kirola gimnasioak. Parking pribatuaz gain, bazkideen arteko harremana nabarmendu du Aitor Berrospek: "Lagunen bat edo familiako norbait daukalako etortzen da jendea, batez ere. Giro atsegina sortzen da". Adin eta egoera fisiko guztietako erabiltzaileak dituztela baieztatu du Berrospek. Sekula ariketa fisikorik egin ez duen jendeari aholkularitza eskaintzen diote, baina gero norberak aukeratzen du zertan jardun. "Hirurogeita hamar urtetik gorako emakumeak ere izaten ditugu spin-



"Udaran bizirautea izaten da helburu"

Eva Correa

ning klaseetan", aipatu du Eva Correak.

Urtarrilaren hasieran, gorakada txikia antzeman dute matrikulazioetan. "Nabaritu dira urte berriko proposamenak. Aurreko urteetan baino gutxiago, hori bai", baieztatu du Aitor Berrospek. Edonola ere, negua izaten da jarduera handieneko urtaroa. Eguraldi onarekin batera, jendeak nahiago izaten du kirola kalean egin. "Udaran bizirautea izaten da helburu", azaldu du Eva Correak. Ekainera bitarte, behintzat, erabiltzailerik ez da faltako Kirola gimnasioan.



Argazkiotan, Belasko eraikinean dagoen Kirola gimnasioko sarrera eta bi areto.



Gasolindegia

VRANZY, S.A.

Avda. Navarra, 18 - 20304 IRUN

Tels.: 943 62 51 83

Fax: 943 63 04 98

javier@avia-uranzu.com

www.estaciondeserviciouranzu.com

Javier Aguirre Losa
Gerente

Amaiera gazi-goza izan du ametsak

Txirrindularitza profesionala utzi du Juanma Garatek

Hamabost urteko ibilbidearen ondoren, txirrindularitza profesionala uztea erabaki du Juanma Garatek. Beste urtebete egin nahi zuen irundarrak tropelean, baina ezin izan du agurra errepidean eskaini. Belkin taldearekin 2013az geroztik daukan lan auziak akitu egin du, bere indarra eta iraunkortasuna gaintitu ditu. Hala ere, bizikleta zintzilikatzeko erabakia ondo hausnartu duela baieztatu du. Hogeita hemezortzi urterekin hartu du erretiroa txirrindulari irundarrak.



Juanma Garate Toureko etapa irabazi zuenean.

Hunkituta agurtu zituen komunikabideak Juanma Garatek, abenduaren 22an, Donostian. Alkandorak ordezkatu zuen mailloa, eta mikrofono eta kameren aurrean erakutsi behar izan zuen trebetasuna. Ipuin moduan kontatu zuen nola hasi zen txikitan ogitartekoak prestatzen, eta bizikleta garbitzen, San Migel auzotik Jaizkibelera igo eta Donostiako Klasikoa ikusteko. "Noizbait txirrindulari haietako bat izatea zen gure ametsa", gogoratu zuen Garatek. 1999ko urrian errealitate bilakatu zen, tropele profesionalen debuta egin zuenean.

Baina ipuinak ez du amaiera atsegina izan. Belkin taldearekin izandako gatazkaren ondorioz, lehiatu gabe egin du azken urtea Juanma Garatek. 2013ko urrian taldeak kontratua aurkeztu zionean, alde zuzenetik adostutakoa errespetatu ez zuela salatu

zuen txirrindulariak. Epaitegietara ere eraman zuen auzia, bere eskubideak defendatzeko asmoz. "Ez dut damurik. Banekien zer izango nuen aurrean, eta argi neukan luze joko zuela. Atzerrian aritu garen txirrindulari askoren egoera salatu dut, eta merezi izan du", azaldu du. Ordainean, hamalau hilabete eman ditu tropeletik kanpo.

Egoera gogorra izan da txirrindulari irundarrarentzat, eta bere familiarentzat. Psikologoaren laguntza ere behar izan du aurrera egiteko. "Momentu zailak bizi izan ditut bizitzan, baina hau gehiegizkoa izan da". Txirrindulariaren eta taldearen arteko lan gatazka ez da amaitu, baina pisu txikiagoa dauka orain Garateren bizitzan. Erretiroa hartzearen erabakiak arindu egin du, hein batean, bere egonezina. Dena den,

Belkinekin duen auzia ez da hautuaren arrazoi bakarra izan: "Kirolariok sentitzen dugu amaiera hurbil dagoela. Aurten ez baldin bazen, datorren urtean iritsiko zen".

Iragana gogoratu, etorkizunari heltzeko Ibilbide profesionaleko momentu esanguratsuenen argazkiak atzean zituela gogoratu zituen Juanma Garatek haietako batzuk. Irabazle baino gehiago, langile eta laguntzaile izan da irundarra tropelean. Hala ere, azpimarratzeko moduko garaipen zerrenda osatu du. Txirrindularitzaren historian lekutxoia dauka, hiru itzuli handietan etapak irabazi ondoren. 2009ko Frantziako Tourean Mont Ventoux mitikoan Tony Martin menderatuta lortu zuen garaipena gogoratzen du bereziki: "Esanguratsua da, zalantzarik gabe. Maila horretako garaipen batek txirrindulari baten

karrera osoa markatzen du". Hala ere, Italiako Giroa izan da Garateren lasterketa kuttunena.

Lampre talde italiarrean hasi zuen ibilbide profesionala. Giroko podiumera igotzen ahalegindu zen hasieran, eta hurbil izan zuen, gainera. Laugarren izan zen 2002an. Lau urte geroago, San Pellegrinoko etapa irabaztea lortu zuen. Garatek tropelean izan duen tokia aldatu egin da urteen poderioz. "Nire mugak zeintzuk ziren argi izan dut beti". Azken urteotan bere esperientzia gazteenei transmititzea izan da Juanma Garateren betekizun nagusietako bat. Bizikleta utzi ondoren ere, eskarmentu hori hurrengo belaunaldien mesedetan erabili nahi luke.

Prest dago txirrindularitzarekin lotuta jarraitzeko.

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Erreala munduan Kilmán, Desde nueve metros, Festaspezzada, La Barrosa, Ocumé, Páramo de cine, Histórias del Bidasoa, Zaborja Krolan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al habla, Ponte en forma



HENDAIA IRUN HONDARRIBIA



berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaia

Zaborja Krolan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al habla, Ponte en forma, Erreala munduan, Kilmán, Desde nueve metros, Festaspezzada, La Barrosa, Ocumé, Páramo de cine, Histórias del Bidasoa

Baietz euskaraz

Bazen behin misiolari euskaldun bat, Nigeriako herriko batera bidali zutena. Nahiz eta herria oso pobrea izan, hango haurrak oso atseginak ziren.

Misiolaria hara iritsi zenean, afrikeraz irakastea eskatu zien hurrei. Haurrek erantzun zioten:

Baldintza batekin, zuk zure hizkuntza erakusten badiguzu, guk afrikeraz erakutsiko dizugu.


Handik aurrera misiolariak euskaraz hitz egiten hasi zitzairen, eta haurrek, berriz, afrikeraz. Primeran moldatzen ziren. Baina, zoritxarrez, misiolaria gaixotu egin zen eta Euskadira bueltatu zuten sendatzera.

Orduan, beste misiolari bati joatea proposatu zioten. Patxi Urbietta, misiolari berria, oso gaztea zen eta ez zen Euskaditik inoiz atera. Oso kezkatua zegoen Nigeria oso urruti zegoelako eta hizkuntza ez zekielako. Bidaia oso luzea egin ondoren herrira iritsi zen.

Orduan, herriko haur guztiak Patxi inguratu eta ea zer moduz bidaia, izena eta abar euskaraz galdetu zioten. Hitz haiek sakon hunkitu zuten Patxi. Orduan pentsatu zuen:

"Zure herritik urrun egon arren, euskarak etxean bazeunde bezala sentiarazten dizu."

Aimar Madariga, Toki Alai LH 5D



Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK



Zerbitzuak:

*Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontabilitateak eta zergiak
Ibilgailuen eskuokdaketa
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, otondekotzak...*

*Errenta altzarienak
Aseguru orokorrak
Eta abar...*

EMOZIO SOZIO MORALAK: KULPA, URGUILUA ETA LOTSA.

Lotsa sentitzea, ona ote?

Lotsa emozio desatsegina da oso; beraz, funtzio inteligentea duela pentsatzea ezinezkoa iruditzen zaigu. Zer funtzio izan dezake haur bati denen aurrean antzerkia egitea agintzen diotenean sentitzen duen lotsak? Gazte bat gustuko duen pertsonari begiratu eta hark bere begiradarekin harrapatzen duenean sentitzen duen lotsak? Edo helduok taldean txiste bat kontatu eta gaizki adierazten garenean sentitzen dugun lotsa horrek? Denok sentitu dugu egoera batean edo bestean lotsa, ezta?

Lotsa, kulpa eta harrotasunarekin batera, emozio soziomorala da. Taldearen barnean arauak betetzen ez dituzunean sorrarazten den emozioa. Norbaitek legea hausten ikusi zaituztela ohartzeko zaren sortzen da, barregarri geratu edo zerbait gaizki egiten harrapatua zarelara uste ditzunean. Bizitutako esperientzia desatseginak berriro ekintza hori ez errepikatzen garrantzitsua, ekintza ekiditen dugu lotsa sentimendua berriro sentitu nahi ez dugulako.

Zenbait egoeratan lotsa sentitzea ona da: lagun bati goxoki bat lapurtzen diotuzunean eta eskua motxilari sartuta harrapatzen zaituztenean, elbarrituen lekuan aparkatu eta gurgildun aulkian pasatzen den pertsonari begiratzen diotuzunean edo neska talde batek mutil bat nesken komunean ezkutatu zelatan ikusten duenean. Lotsaren sentsazioak gaizki egindakoa berriro ez egiten laguntzen digu, sentitzen duguna oso desatsegina denez berriro ez sentitzeko gaizki egindakoa ez dugu errepikatzen.

Zer gertatzen da orduan LOTSAGABEKIN? Taldean behin eta berriro modu desegoki batean hitz egiten dutenekin? Edo leku publiko batean biluzten direne-

kin? Eta mukiak zintzilik eta mihiarekin miatzatzen dutenekin? Talde arauak eta ohiturak ez dituzte betetzen eta baztertuak izateko aukera dute. Lotsa desatsegina da noski, baina lotsa ez sentitzea arazo bat bilaka daiteke. Lotsak ba du orduan bere funtzioa, ezta?

Bestalde, badira izaera lotsatia izatera bideratu ditugun pertsonak; hau da, LOTSATIAK. Hauek gehiengoarentzat egoera lotsagarriak ez direnean lotsa sentitzen duten pertsonak dira. Ez dira leku berrietan sartzen, galdetzeak lotsa ematen dielako; ez dute jendearen aurrean hitz egiten, barregarri gelditze beldurra dutelako, edo ez dute gona motz edo tiranteko nikiak janzten, zer esango duten beldur direlako.

Eta nola egin aurre lotsari?

Lehenik (behaz erakuslea erduan), norbaitek lotsa sentitzean gehienetan zer egiten dugun aztertuko dugu. Zer egiten edo esaten dute helduek (irakasle zein guraso, zein lagun zein ezagun) haurra edo gaztea "egoera ez lotsagarrietan" lotsa sentitzen duela ikustean?

- Honek lotsatzen zaitu? Beno mesedez! Hau ez da lotsa sentitzeko! Hasi egiten egin beharrekoa eta kitto.

Haurra edo gaztea lotsarazten dugu, inseguritatea sortzen diogu. Modu honetan, haur edo gazteak beharbada lotsatzen duena egiten du; baina, nahiz eta ekintza burutu, ez dugu ziurtasunik haur edo gazteak beste momentu batean egoera berdinari aurre egingo diotik. Askotan, alferrik bizitutako sufrimendua da, ez zaizue iruditzen? Haur batek taldearen aurrean abestean lotsa sentitzen badu bere baitan ongi



egin ezin duelako da, barregarri edo lotsagarri sentituko dela uste duelako. Bestetan, utzi egiten da guk ere gaizki pasatzen dugulako, baina ez diogu sentitzen duena erregulatzen irakasten.

Ez al da egokiagoa beste erantzun hau?

- Denen aurrean irakurtzeak lotsatzen zaitu? Beno, denok lotsatzen gaitu zerbaitek. Kontua ez da lotsa gabe bizitzea, lotsa gaintzen ikastea baizik. Gainera ni ziur naiz zuk hori primeran egin dezakezula! Zure erantzukizuna da lotsa poliki-poliki gaintzen joatea. Izugarri aberasten gara oztopoak gaintzen ditugunean. Animo! Gainera hemen gaudenok ez dizugu barre egingo. Denok badakigu zer den lotsatzea, ezta? Saiatu nahi duzu? Ez?

Erantzun honekin, haurrak sentitzen duenari hitzak ipintzen dizkiogu, kontzientzia eman, emozioa ulertu eta onartu. Honek ez du esan nahi egun bakar batean lotsa gaintzen denik, denbora eta pauso txikiak eman behar dira. Helduok laguntza handia eskain dezakegu, sentitzen duena ulertu,

onartu eta hitzetan ipiniz eta gure jarrera positiboarekin progresiboki pauso ezberdinak eskainiz. Badakit ez dela lan erraza, baina laguntzeak pertsonalki izugarri aberasten gaitu eta bide hori gure zorientasun bide pertsonala bilaka daiteke

Denok ditugu zailtasunak, batzuetan lotsa sentitzen dugu eta gaintu nahi dugu. Gugandik atera behar da gaintzearen nahia, eta emeki, helburu txikiak ipiniz, pausoz pauso lor dezakegu. Animatek zure lotsak garaitzen eta lagundu ondokoenak gaintzen! Sentitzen dugulako badakigu bizirik gaudela, eta bizirik sentitzen garenez, hauta dezagun emozio atseginen bilaketaren bidea; poza, interesa, esperantza, maitasuna edo urgailua ematen diguten gauzak edo gertaerak bila ditzagun geure egunerokotasunean. Baina ez ahaztu emozio desatseginek ere bizirik gaudela adierazten digutela, eta hauekin bizitzen eta gaintzen saiatu behar dugula. ZORIONTSU BIZI eta LASTER ARTE!

kuttun.kuttun@gmail.com
MAPI URRESTI ORTIZ



Zure erosketa Irungo Merkatuan egin nahi baduzu baina joaterik ez baduzu, egin Internetez

laplazadeabastos.com
Betidaniko erosketa, orain on line

Txartel hau aurkezten, garralo zerbiltzua dohainik
DTO-Irunero-1415



Txingudi Ikastola BHI

DIEGO TAMAYO ATLETARI ELKARRIZKETA

Jon Elkano naiz eta Diego Tamayori elkarrizketa bat egin diot bere kirol gustukoenari buruz, hots, atletismoa.



Jon Elkano (4.DBH)



- Zergatik hasi zinen atletismoa egiten?

Telebistan noizbait atletismoa ikusi eta asko gustatu zitzaidanez, nire gurasoei esan nien eta, beren laguntzarekin, izena eman nuen.

- Zer sentitzen duzu kirol hori egitean?

Normalean ez dut ezer sentitzen oso kontzentratua nagoelako; baina lehiaketa batzuetan, irabazten ari naizean, edo postu onean geldituko naizela dakidanean, poz izugarria sortzen zait.

- Noiz izaten duzu entrenamendua?

Normalean, astelehenetan, asteazkenetan, ostegunetan, ostiraletan eta igandetan. Urte osoan dut, udan izan ezik, baina udaran lagunekin noa Hondarribira korrika egitera, lortutako erritmoa ez galtzeko. Entrena-

menduak normalean bi ordukoak izaten dira.

- Ordaintzen duzu zerbait?

Bai, kuota 180 eurokoa da urtero. Momentuz nik ordaindu behar dut baina denborarekin, lehiaketetan lehenengoa geratzen banaiz eta domina gehiago irabazten baditut, klubak ordainduko lidake dena.

- Nekagarria da egiten duzun kirola?

Bai, esfortzu fisiko handia egin behar delako; entrenamenduetan eta lehiaketetan, batez ere.

- Zein da urrutien joan zaren tokia?

Salou (Katalunia) izan da momentuz urrutien joan naizena, orain dela gutxi hasi naizelako.

- Zein da lortu nahi duzun helmuga, kirol honetan?

Hoberena izatea gustatuko litzaidake eta txapelketetan lehena gelditzea. Kevin Lopez bezalako izatea da nire ametsa eta asko gustatuko litzaidake noizbait bera ezagutzea.

- Baduzu titulu edo dominarik?

Bai, garrantzitsuena Euskadiko txapelketa batean irabazi nuen, bigarren gelditu bainintzen; beste domina batzuk irabazi ditut baita ere, baina ez hain garrantzitsuak.

Mila esker nire galderei erantzuteagatik eta ea lortzen dituzun zure helburuak.

ADIERAZPEN ASKATASUNAREN AURKAKO ATENTATUAK (INTERNETEN)



Pariseko atentatu ikaragarriek berehala izan dituzte batzuek espero genituen ondorioak, asko baikinen haien beldur, aurrerakinak kontuan hartuta.

Berririo piztu da segurtasunaren kontua, askatasunaren gainean ipinita; oraingoan, Erresuma Batuan 2011n bezala, segurtasun elektronikoa da zalantzan jarri dena.

Europako agintari zenbaiten mezuak benetan dira kezka-

gariak. Erresuma Batuko gaur egungo lehen ministro David Cameronek, maiatzeko hauteskundeei begira, aurreratu du kontserbadoreek irabaziz gero Whatsapp eta oro har mezuak zifratzeko balio dezaketen zerbitzu elektronikoko guztiak debekatu egingo dituela.

Urte pare bat eman dugu Whatsapp kritikatzeko, beren komunikazioetan segurtasun eskasa eskaintzen duelako, eta, hara! horrexegatik akabatu nahi dute orain.

Espanian, berriz, Raxoik ohartarazi du segurtasunari buruzko lege organiko bat sortu nahi duela, webgune jihadistak detektatzeko eta ordenagailu horiek hakeatuta epaile-agindurik gabe espiatu ahal izateko.

Adierazpen hauek izugarri larriak dira, biak ala biak. Batetik, britainiar gobernuak alboratu nahi ditu espiatu ezin dituen komunikazio-bide guztiak, haien enpresek, edonongoak izaki ere, men egiten ez badiote gobernuaren nahiari.

Espanian, aldiz, epaile-agindurik gabeko espioitza legalizatu nahi dute, hartara pribatua den nabigazio-historialean oinarrituta.

Honetan guztian Orwellen oihartzunik entzuten ez duena ez da jabetzen nora garamatzaten joera hauek, zelatatze masiboa eta errepresio politiko eta soziala egin eta informazioa manipula daitekeen gizarte baten ildo irekitzen ari baitira.

Herritarrek darabilten komunikazio-bide bat etetea haien adierazpen-askatasuna azpiratzea da; hots, zentsura, eta beraz Estatuak ezin du inondik inora planteatu ere egin, eta behar-beharrezkoa balitz, betiere oso kontrol zorrotzen menean.

Paradoxikoa da, gero, Charlie Hebdoen kontrako atentatuak, hau da, adierazpen-askatasunaren kontrakoak, piztu izana Estatuaren aldetik askatasun-adierazpena mugatzeko ahaleginak.

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

www.gbeventos.es

Enpresa ekitaldiak

Erakunde ekitaldiak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak

Ezkontzak

Urteurrenak

Oscar Portugués

+ DJ *Rizama*

Ekitaldiak zuk nahi duzun erara
Zer behar duzu?

MARIA SEGADE:

“Enpresetan barneratutako ohitura asko zahar kituta daude”



Enpresa egiaztatzaile handi batean egiten zuen lan Maria Segadek. Krisi ekonomikoaren ondorioz murrizketa egin zuen multinazionalak, eta langabe geratu zen. Baina aukera baliatuta, aholkularitza enpresa sortu zuen Segadek. Ficoban dauka gaur egun bulegoa MS Kontsultoriak. Bakarrik hasi zen Maria Segade duela urtebete, baina lanaldi murriztuan ari den enplegatua kontratatu du dagoeneko. Genero berdintasunean espezializatzen ari da.

- Nola eman zenuen enpresa sortzeko urratsa?

Langabezian egon nintzen denboran ikasten jarraitu nuen. Masterra atera nuen, eta beste hainbat titulazio ere lortu nituen. Kontsultoria sortzea erabaki nuen, ni beste aldean ibilia nintzelako, auditoriak egiten. Horrek enpresei aholkuak emateko abantaila ematen zidan. Lehen pausuak ematea zaila izan zen, ama naizelako. Ekintzaile izateak diru asko edo denbora asko inbertitzea eskatzen du, eta ez neukan, ez bata, ez bestea. Baina baditu alde onak, norberaren arauak jartzeko aukera, adibidez.

- Zein da kontsultoria edo aholkularitza enpresa baten lana?

Kontsultoria batek enpresei laguntza eskaintzen die, eremu ezberdinetan ziurtagiriak lortzeko, batez ere. Kalitatea, ingurumena, segurtasuna edo berdintasuna izan daitezke. Esate baterako, kontsultoriak enpresa baten kalitate sistema bat garatzen parte har dezake. Gero, erakunde egiaztatzaile baten auditoria gairiditu beharko luke sistemak, balioa izan dezan. Asesoria bategiko alde handiena da kontsultoria enpresarekin elkarlanean aritzen dela. Asesorian lana euren kabuz egiten dute, bule-

goan.

- Nola sortzen da enpresaren eta kontsultoriaren arteko harremana?

Batzuetan, enpresa batek beste-ari aholkatzen dizkio gure zerbitzuak. Beste batzuetan, gu gara saltzaile lana egin eta geure burua aurkezten dugunak. Enpresa gehienei bezeroen eskakizunen ondorioz sortzen zaie ziurtagiriak lortzeko beharra. Lehiaketa publikoetan, adibidez, puntuazio handia ematen du berdintasun plan bat edukitzeak. Konpetentziaren eraginez mugitzen dira enpresak.

- Zergatik erabaki duzue berdin-

tasunean espezializatzea?

Arlo sozialak beti erakarri izan nau. Gauzak aldatzeko aukera ematen du, giza baliabideetako jendearekin lan egiten duzulako. Enpresetan barneratutako ohitura asko zahar kituta daude, baina inork ez dio bere buruari galdetu ea egiten duen hori egokia den edo ez. Ezjakintasun handia dago. Jende askok uste du enpresetan berdintasuna existitzen dela, baina ez da horrela. Enpresa gehienetan, postu jakin batzuetatik gora ez da emakumerik izaten. Soldatei dagokienez ere, diferentzia handia dago. Enpresa batzuk legez kotatasunaren mugan daude.

nez ere, diferentzia handia dago. Enpresa batzuk legez kotatasunaren mugan daude.

- Nola aldatu egoera horiek?

Prozesu zaila eta luzea izango da, enpresetako jabeek ez diotelako errentagarritasunik ikusten. Enpresa gehienetan, langileak produzitzeko tresna dira. Balioa duena produktua da, ez langilea, pertsona. Ikuspegi hori aldaraztea ez da erraza. Lana dago aurretik.



www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 508 258 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT





Deialdiak

2014-2015 HEZIKETA-ZIKLOAK SARBIDE PROBA



- Zer? Lanbide Heziketako goi-mailako eta erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko 2014-2015 ikasturteko proba-rako deialdia.

Epea? Urtarrilak 21.

Hartzaileak? Proba hau egiteko, hautagaiek inskripzioa egin beharko dute prestakuntza zikloak ematen dituen EAEko edozein zentrotan.

EGA: 2015EKO DEIALDIA

- Matrikulaldia? Urtarrilaren 7tik 21era, biak barne.

Noiz?

- Atariko proba: otsailaren 21ean.
- Proba idatzia: martxoaren 7an eta 14an.
- Ahozko proba: maiatzaren 22an, 23an, 29an eta 30ean.
- Non eman izena?
www4.hezkuntza.net

OSAKIDETZA: KONTRATAZIO ZERRENDA 2014

- Zer? 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako KATEGORIA guztiak: Medikuak, Osasun diplomadunak, Erdi mailako teknikariak, Osasun teknikari espezialistak, Administrazioak, Gidariak eta mantentze-lanen teknikariak, Zeladoreak eta Zerbitzuetako langileak.

Halaber, 2011 Enplegu Publikorako Eskaintzatik kanpo utzitako kategoriak, berriz ireki behar direnak: Informatikako goi-mailako teknikaria, Hizkuntza normalkuntzako goi eta erdi-mailako teknikariak, Prebentzioko goi eta erdi-mailako teknikariak.

Non eman izena? www.osakidetza.eskadi.net

Epea? Urtarrilak 30, 14:00ak arte.



UNIBERTSITATE ORIENTAZIO AZOKAK 2015: ZURE GALDEREK ERANTZUNA IZANGO DUTE

- Zer? 2015-2016 ikasturterako Unibertsitate Orientazio Azokak egingo dira.

- Non? Donostia Ignacio Maria Barriola Zentroan

- Noiz? 2015eko urtarrilak 24.



Ikastaroak

2015EKO ARGAZKILARITZA IKASTAROAK



- Zer? Irun, Antzarango auzo elkarteak. Oinarrizko argazkilaritza digitala eta jarraipen

ikastaroak.

- Noiz? Martxotik ekainera arte.
- Prezioa? 200 euro.
- Informazio gehiago: fotoeskola.wordpress.com.

EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN 2015

- Zer? Garapenerako ekin-



- Aurrez aurre: Foruen karrika, 2, behea
- Telefonoz: 943 505 444 / 943 505 440
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

ANTZERKIA: "EL INTÉRPRETE"

- Zer? Elkartzeko artistiko honetatik sortu da *El Intérprete*. Gaur egun gure bizitzaren zati bat diren kanta eta interprete dramatiko haien bidez egiten den musika bidaia bat da, eta guk baino lehenago beste batzuek interpretatu dituztenek ere beren tartea dute bertan. Kurt Weill, Héctor Lavoe, Lucho Gatica, Chavela Vargas, La Lupe, Gardel, Talking Heads, David Bowie, Rolling Stones...

- Non? Amaia KZn.
- Noiz? Otsailak 1.
- Ordua? 19:00etan.
- Prezioa? 16 euro.



tzak hegoaldeko herrialdeetan izaten dira, Amerika, Asia eta Afrikan, hain zuzen ere. Esperientzia hiru hilabetez, uztailetik urrira arte izango da.

- Izen-ematea: otsailaren 23a arte.

- Informazio gehiago:
www.gazteaukera.eskadi.net



zure enpresari
internetetik zabaltzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



Urtarrilaren 16an

Zer? Antzerkia "Amor de Don Perlimplín con Belisa en su jardín".

Non? Amaia KZn.

Ordua? 19:30ean.

Iraupena? 75 minutu.

Prezioa? Sarrera gonbidapenarekin.

Antolatzailea: ONCE

Kutxan.


Urtarrilaren 28an

Zer? Sukaldaritza tailerra "El bacalao y sus diferentes formas de cocinarlo" Leire Etxaideren eskutik

Non? Argoiak. Bertsolari Uztapide, 6an.

Ordua? 17:00etan.

Prezioa? Doako sarrera.

Urtarrilaren 19an

Zer? Marian Benítez Libroforum tailerra "Un deseo propio".

Non? Ikust Alaia liburutegian.

Ordua? 19:00etan.

Prezioa? Doako sarrera.

Urtarrilaren 20tik o-tsailaren 1era

Zer? Txitxo Txabarri margolariaren erakusketa.

Non? Kolon ibilbideko Laboral

Prezioa? Doako sarrera.

Urtarrilaren 23an

Zer? Zine Kluba Cinema Paradiso. "Madre e hijo" filmaren proiektzioa.

Non? Amaia KZ

Ordua? 20:00etan.

Prezioa? 5,10 euro.


Urtarrilaren 27an

Zer? Irakurketa klubaren saio berri bat Mertxe Trancheren eskutik. Liburua: Junot Diazen "Así es como la pierdes".

Non? Ikust-Alaia liburutegian.

Ordua? 19:00etan.

Prezioa? Doako sarrera.


M' NAWA KONTZERTUAN

Zer? M' NAWA taldearen kontzertuta.

Noiz? Urtarrilaren 31an.

Non? Kabigorri ateneoan.

Ordua? 23:30ean.

Prezioa? Doan.


Korrika 15: Batzarrerako deialdia

Aurtengo Korrika martxoaren 19an abiatuko da Urepeletik eta Ilegun geroago amaituko da Bilbon. Geuretik, Bidasotik, martxoaren 21ean eta 22an pasako da.

Hain zuzen ere, Diartzungo Gurutzetik iritsiko da Irunera martxoaren 21ean Lesakarantz abiatzeko eguerditik aurrera, eta, 22an, berriz, Pausu eta Hendaia zeharkatu ondoren, Hondarribitik bueltan, lezoarrei pasako diegu lekukoa Gaintzurizketan, goizaldeko ordu txikietan. Hau guztia



antolatzeak lan eskerga dakar. Horretarako batzordeak osatuko dira. Batzar irekiak izango dira guztiak, "euskaltzale guztiok senti daitezten Korrikaren parte, denok

senti gaitezen euskahaldun".

Irun: urtarrilaren 22an, AEK Irungo euskaltegian, 19:00etan.

Nafarroa ibilbidea. 7 - IRUN **+34 943628 333**

info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PISU ETA LOKALAK SALGAI

<p>Pisua salgai Irun San Juan Azalera 99 m², 2 gela, berdegela, egongela, sukaldea, traxelakua, berrikuntza elektriko, begiak, uruz, eguzkitua.</p> <p>Ref: 04297 119.000 €</p>	<p>Pisua salgai Hendaya Azalera 45 m², 3 gela, berdegela, sukaldea, komuna, egongela, sukaldea, berrikuntza elektriko, berrikuntza elektriko, berrikuntza elektriko eta traxelakua. Ateratzailea berria.</p> <p>Ref: 03511 190.000 €</p>	<p>Pisua salgai Irun San Juan Azalera 80 m², 3 gela, berdegela, egongela, sukaldea, sukaldea, berrikuntza elektriko, eguzkitua eta traxelakua. Berrikuntza elektriko.</p> <p>Ref: 04333 155.000 €</p>
<p>Pisua salgai Mendeku Azalera 75 m², 3 gela, berdegela, komuna, egongela, sukaldea, traxelakua, berrikuntza elektriko, berrikuntza elektriko, berrikuntza elektriko eta traxelakua.</p> <p>Ref: 04362 240.000 €</p>	<p>Pisua salgai Irun Palmira Azalera 85 m², 3 gela, 2 berdegela, egongela, sukaldea, traxelakua, berrikuntza elektriko, berrikuntza elektriko, berrikuntza elektriko eta traxelakua.</p> <p>Ref: 04299 248.000 €</p>	<p>Pisua salgai Irun Erdin Azalera 62 m², 3 gela, berdegela, egongela, sukaldea, sukaldea eta berrikuntza elektriko. Berrikuntza elektriko eta traxelakua.</p> <p>Ref: 04329 120.000 €</p>
<p>Lokal garagea salgai Irun Dunboa Azalera 140 m², komuna, berdegela eta berrikuntza elektriko. Berrikuntza elektriko eta traxelakua.</p> <p>Ref: 04048 259.000 €</p>	<p>Lokala salgai Irun San Juan Azalera 40 m², komuna eta eguzkitua. PUPERRAKO AJURRAIT</p> <p>Ref: 04305 210.000 €</p>	<p>Lokala salgai Irun Dunboa Azalera 50 m², komuna, eguzkitua, berrikuntza elektriko, berrikuntza elektriko eta traxelakua.</p> <p>Ref: 04379 65.000 €</p>

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

TXALAKA

Erretegia-Sagardotegia

Larretxipi, 10 IRUN-Udaletxetik 50 metrora

943 57 43 71-688 87 50 54



Txuleta eta arrainik onenak erreta

- Eguneko menuak eta kuadrilentzako espezialitateak
- ETXEKO ESPEZIALITATEAK: Txuletoa eta arrain erreta
- Sagardotegi menua
- Larunbata eta igandetan: Babarrunada sakramentu guztiekin, Nafarroako potxak barazki eta txirlekin.
- Plater konbinatuak eta bokatak
- Bazkari zein afari bereziak enkargatu daitezke



Zure aurrekontuaren arabera moldatzen gara



AsadorCerveceriaTxalakaIrun



@Cervetxalaka

e-posta: sidreriatxalaka@gmail.com